

[Eusk/Cast] Gazteiz, 1976ko martxoaren 3a / Gazteiz, 3 de marzo de 1976

AMNISTIAREN ALDEKO ETA ERREPRESIOAREN AURKAKO MUGIMENDUA :: 03/03/2023

Hoy tenemos claro que nuestro objetivo no es pelear por la nación burguesa vasca sino por la nación obrera vasca y por el triunfo de la revolución socialista mundial.

[Euskara]

Gazteiz, 1976ko martxoaren 3a

Gaur, 1976ko martxoaren 3aren urtemugan, euskal langileriaren eta, oro har, herri langilearen errepresioaren eta bizi-baldintzen etengabeko degradazioaren aurrean, klase elkartasunaren beharraz jabetu behar gara.

Gaur egun argi dugu gure helburua ez dela euskal nazio burgesaren alde borrokatzea, baizik eta euskal langileen nazioaren alde eta munduko iraultza sozialistaren garaipenaren alde. Premisa horiek ukaezinak dira guretzat. Horiek izan dira hamarkadetan euskal militantzia iraultzailearen zati handi baten helburuak. Gaur egun ere bai, gutako askorentzat.

Horrela adierazten dugu gure jarrera politiko eta ideologikoa Gasteizko martxoaren 3ko sarraskiaren testuingurua adierazteko orduan. Martxoaren 3an 47 urte beteko dira sarraskia gertatu zenetik. Egun horretan, bost langile hil eta ehunka zauritu eta atxilotu zituzten. Oraindik beste bi hildako [Basaurin eta Tarragonan] eta ehunka errepresaliatu izan ziren sarraski horren aurkako mobilizazioengatik. Horixe izan zen burgesiaren erantzun politikoa langileen mobilizazioen eta beren auto-antolaketaren aurrean.

Errepresio-maila horren arrazoi nagusia euskal langile-klaseak kapitalaren aurrean zuen antolaketa-maila handia izan zen. Hau da, bere tresna nagusia, langileen batzarra. Hori zen eztabaidarako eta erabakitzeko lekua, beste edozein egitura edo alderdiren gainetik. Hortik ateratzen ziren beste batzar batzuekin koordinatu eta patronalaren aurrean ordezkatzeko zituzten ordezkariak.

Alderdi eta sindikatuen eta sistemako beste erakunde batzuen jardunbidea ikusita, berresten dugu euskal langileriaren irtenbide bakarra borroka eta antolaketa direla.

Gora euskal langileria!

Amnistia. Independentzia eta sozialismoaren alde. Euskal Estatu Sozialista eraikitzearen alde.

Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimendua

[Castellano]

Gazteiz, 3 de marzo de 1976

Hoy, aniversario del 3 de marzo de 1976, ante la represión y continua degradación de las condiciones de vida de la clase obrera vasca, y pueblo trabajador en general, debemos ser conscientes de la necesidad de la solidaridad de clase.

Hoy tenemos claro que nuestro objetivo no es pelear por la nación burguesa vasca sino por la nación obrera vasca y por el triunfo de la revolución socialista mundial. Esas premisas son irrenunciables para nosotras/os. Esos han sido durante décadas los objetivos de una parte importante de la militancia revolucionaria vasca. También hoy los siguen siendo para muchas y muchos de nosotras y nosotros.

Así expresamos nuestra posición política e ideológica a la hora de señalar el contexto en el que se produjeron los hechos de la matanza del 3 de marzo en Gazteiz. Este 13 de febrero se cumplen 47 años de la masacre. Ese día, cinco trabajadores fueron asesinados y cientos resultaron heridos y detenidos. Todavía hubo otros dos muertos [en Basauri y Tarragona] y cientos de represaliados por las movilizaciones contra esta masacre. Esta fue la respuesta política de la burguesía ante las movilizaciones obreras y su auto-organización.

La causa principal de tal grado de represión fue el alto grado de organización de la clase obrera vasca frente al capital. Esto es, su instrumento principal, la asamblea de trabajadoras y trabajadores. Ese era el lugar de debate y decisión por encima de cualquier otra estructura o partido. De ahí salían los delegados que coordinarían con otras asambleas y les representarían ante la patronal.

Viendo la actual práctica de los partidos y sindicatos y otras organizaciones del sistema, nos reafirmamos que la única salida para la clase trabajadora vasca es la lucha y la organización.

Gora euskal langileria!

Amnistia. Independentzia eta sozialismoaren alde. Euskal Estatu Sozialista eraikitzearen alde.

Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimendua

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-gazteiz-1976ko-martxoaren>